

Euskara eta Literatura

Batzilergoa


KOMUNIKAZIOA I

PROIEKTUA eta PROGRAMAZIOA




Euskara eta Literatura
Batxilergoa

KOMUNIKAZIOA



PROIEKTUA eta
PROGRAMAZIOA

ibaizabal



Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia. (2006-07-17)

GERENTEA

Agustin Oiarzabal

EDIZIO ZUZENDARIA

Sabin Gorrotxategi

EGILEAK

Ibaizabal taldea

AZALA

Aitziber Ibaibarriaga

MAKETAZIOA

Nerea Uribe

INPRIMAKETA

CUATROAS S.L.

Aita Larramendi, 4 - 2. esk. 48012 BILBAO

94 410 60 52

cuatroas@cuatroas.com

Liburu honen salmentaren % 0,7 Bamenda Bafut-en (Kamerun) eskola bat eraikitzeke izango da.
Eskola horren eraikuntza kudeaketaz SED (Solidaridad, Educación y Desarrollo) izena duen
Gobernuz Kanpoko Erakundea arduratzen da.

PROIEKTUA

SARRERA

DBHko *i.bai* proiektuari Batxilergoan jarraipena eman nahian, proiektu honetan bilduko diren materialekin nagusiki bi helburu lortu nahi ditugu Euskara eta Literatura arloan:

- √ Gazteei proposamen egokiak eta erakargarriak aurkeztea, Euskara eta Literatura arloko edukiak barnera ditzaten, eta ikasteko prozesuari etekin onena atera diezaioten.
- √ Irakasleei metodologia eta proposamen berriak, praktikoak, erakargarriak eta eraginkorrak eskaintzea, betiere haien beharrak kontuan hartuta, eta Curriculumetik abiatuta.

Bi helburu horiek buruan ditugularik, materialak prestatzeko orduan kontuan izan ditugun irizpideak honako hauek izan dira:

- Hizkuntza pertsonak elkarrekin komunikatzeko tresna da.
- Hizkuntza mundua irudikatzen bitartekoa ere bada, eta horregatik, pentsamenduari eta ezagutzari lotuta dago.

Izan ere, Joseba Sarrionandiak zioen moduan “Komunikazioa hogeitapiku letra konbinatzea baino zerbait gehiago da.”¹ Komunikazioak geure pentsamendua garatzeko aukera emateaz gainera, besteena geureganatzeko eta errealitatea ulertzeko parada eskaintzen digu.

Horregatik, arlo honetan eta Batxilergoan gure helburu nagusia da ikasleek euskaraz egoki komunikatzeko gaitasuna lortzea. Eta gaitasun hori lortzeko trebetatsun batzuk landuko ditugu: ulermen trebetatsunak, adierazpen trebetatsunak eta hizkuntzaren hausnarketa.

ALDERDI METODOLOGIKOAK ETA DIDAKTIKOAK

- Ikasleen komunikazio gaitasuna garatzeko, hizkuntzaren ikaskuntza prozesuan oinarritzekoak diren **lau trebetatsunak** garatzea beharrezkoa da: irakurri, entzun, mintzatu eta idatzi. Horretarako, nahitaezkoa da **ulermen, adierazpen eta hausnarketa estrategiak** ezagutzea eta horietan trebatzea.

Ulermena

Ahozko nahiz idatzizko testuen benetako ulermenerako, ezinbestekoa da testuinguruak duen garrantziaz jabetzea: jasotzen ari garenari buruz norberak zer dakien, zer helbururekin jarri garen testuaren aurrean, igorlea nor den, non eta zertarako idazten edota hitz egiten duen... Horrekin batera, Batxilergoko ikasleek igorleak erabilitako bitartekoak interpretatzeko gaitasuna lortu behar dute: erabili duen tonua (serioa, ironikoa, umoretsua...), lerro artean esan duena (esan duena eta esan nahi izan duena)... Ahozko nahiz idatzizko testuen edukia jasotzeaz gain, jasotako edukiei buruzko hausnarketa egiteko gai ere izan behar dute, horrela garatuko baitute edozein diskurtsoren aurrean izan beharreko jarrera kritikoa.

¹ Joseba Sarrionandia, *Bost idazle Hasier Etxeberriarekin berbetan*, Alberdania.

Adierazpena

Ikasleek komunikazio egoera erreal bakoitzari egokitutako testuak sortzeko gaitasuna garatu behar dute. Horretarako, ahoz nahiz idatziz zerbait adierazterakoan, nahitaezkoa da zuzen eta egoki, modu koherentean eta ondo kohesionatutako testuak sortzearen garrantziaz gogoeta egitea ikasleekin, eta horretarako gaitasuna lortzeko aukerak eskaintzea.

Bestalde, ahozko nahiz idatzizko ekoizpenak egiteko prozesua barneratzea ere oso garrantzitsua da, ekoizpen zuzen eta egokiak egin ahal izateko (gidoia egin, zirriborroa idatzi, berrikusi eta zuzendu...). Hori ikusarazi eta horretarako bideak eskaini beharra ikusi dugu.

Hausnarketa

Garrantzitsua da ikasleek hizkuntzari buruzko hausnarketa egitea, hizkuntza gaitasuna eta haren erabilera hobetzea nahi baldin badugu. Horretarako, nahitaezkoa da sistema ezagutzea, eta baita hori aztertzeko prozedurak ere. Horrek norberaren ekoizpenak, ahozkoak zein idatzizkoak eta, beraz, komunikazio gaitasuna, hobetzen lagundu diezaiekela konturatu behar dute eta, bide batez, zuzentasunak duen balioaz jabetu.

- **Informazioaren gizartean** bizi garenez, geroz eta beharrezkoagoa da hedabideetatik iristen zaigun informazioa aukeratzen eta garrantziaren arabera sailkatzen jakitea, eta horren balioari buruzko gogoeta kritikoa egiteko gaitasuna izatea (jasotakoari buruz norberak zer dakien pentsatu, galderak egin...). Gazteek jakin egin behar dute komunikabideetatik heltzen zaien informazio guztia interpretatzen, eta ez, besterik gabe, jasotakoa onartzen.
- **Ezagutza beti eraikuntza prozesu baten emaitza** denez, ikasleek dakitenetik edota dituzten gabezia edota zailtasunetatik abiatuz egingo dute lan. Egoera komunikatibo errealeetatik abiatuz, horri buruz dakitenaz egingo dute gogoeta eta, hori kontuan hartuta, ikaskuntza prozesuan aurrera egingo dute, informazio berriak bereganatuz.
- **Prozeduretan** oinarritutako proiektua da, praktikan oinarritutako metodologia. Ikasleak ikaskuntza prozesuan protagonista izan behar du. Beraz, irakaslea ikaskuntza prozesuaren gidari izango da, eta ikasleen eta irakaslearen arteko komunikazioan oinarritutako lana egingo da gelan. Irakaslearen eta ikasleen parte-hartze aktiboa nahitaezkoa izango da.
- **Bakarka nahiz taldeka** egiteko jarduerak bildu ditugu. Horrez gain, ikasleei aukera ematen diegu elkarren lanak aztertzeko eta baloratzeko; horretarako, materialetan adierazitako eta irakaslearekin adostutako irizpideetan oinarrituko dira. Horrela, ezagutzak elkarren artean trukaturaz, ikasleen jarrera aktiboa, kritikoa... garatu nahi dugu.
- Proposamen didaktiko **motibagarriak** eskaintzeko ahalegina egin dugu. Horretarako, komunikazio egoera errealak hartu ditugu abiapuntu eta, beraz, testu errealekin (ahozko zein idatzizkoekin) egin da lan; gehientsuenak euskarazko komunikabideetatik jaso ditugu (aldizkariak, egunkariak, Internet, irratia, telebista...). Hizkuntza eredu errealak hautatu ditugu, gai aldetik gazteentzat hurbilekoak, eta, era berean, ezagutza iturri izango direnak.

Testu tipologia askotarikoa bildu dugu, baina Batxilergoko ikasleak eta horien beharrak kontuan hartu ditugunez, argudioaren eta azalpenaren presentzia nabarmena da.

- Beharrezkoa iruditu zaigu proposamen didaktikoen **helburuak ikasleei adieraztea**, egingo dutenaren haria errazago jarrai dezaten, eta zertarako ari diren gogoan izan dezaten une oro. Egindako ahalegina helburu horren lorpenera bideratu beharko du.
- Gaitasun linguistikoa lantzeko garrantzitsua da **gramatikako itemak** komunikazio testuinguruetan lantzea. Zenbait eduki lantzeko, ordea, prozedura “tradizionalagoak” ere lagungarriak izan daitezke, hausnarketa egiteko eta hizkuntzaren “mekanismoa” ikasleenganatzeko. Denetarik bildu da proiektuan.

HELBURU OROKORRAK

1. Ahozko nahiz idatzizko testuak ulertzea, hots: testuingurua kontuan hartuz, edukia jasotzea eta haren interpretazio kritikoa egitea.
2. Egoera eta helburu komunikatiboaren arabera, ahozko zein idatzizko testu koherenteak, zuzenak eta egokiak sortzea. Eta, bide batez, sorkuntza prozesuan jarraitu beharreko urratsen garrantziaz jabetzea.
3. Ahozko eta idatzizko hizkuntzak komunikaziorako, errealitatea ulertzeko eta aztertzeke eta norberaren pentsamendua garatzeko duen garrantziaz jabetzea.
4. Hizkuntzari buruzko hausnarketa egitea, norberaren eta besteen hizkuntza jardunak aztertzeke, baloratzeko eta zuzentzeko.
5. Hizkuntzaren erabilerak aztertzea, eta besteen nahiz norberaren hizkuntz jardunetan egon daitezkeen jarrera diskriminatzaileak era gogoetatsu eta kontzientean baztertzea.
6. Euskararen egoera anitzaz jabetzea, eta errealitate horrekiko errespetuzko jarrera hartzea.
7. Euskararen historia eta bilakaera ezagutzea, ibilbide horrek euskal gizartean izan dituen eraginak interpretatzeko.
8. Literatur testuak interpretatzea eta sorkuntza lan gisa aztertzea eta baloratzea.
9. Euskal literaturaren aldi, lan eta idazle nagusietako batzuk euren testuinguruan kokatuta ezagutzea.
10. Literatur agerpenak norbanakoa eta gizartea irudikatzeke duten ahalmenaz ohartzea, eta horien aurrean jarrera zabala erakustea.

EDUKIAK

A. Prozedurazkoak

Hizkuntzaren erabilera

— Ahozko eta idatzizko testuen ulermenak:

- Norberak dakienaz gogoeta egin (testuari, testuinguruari, gaiari... buruz). Inferentziak eta auresuposizioak.
- Edukia eta mezua aurreikusi, diskurtsoaren elementuak aztertuz.
- Testuinguruaren ezaugarriak zehaztu.
- Testuaren zentzua jaso: lexikoa ulertu, informazioaren antolaketa aztertu (ideia nagusiak eta bigarren mailakoak, horien ordena...), lerro artean irakurri, iritzia eta informazioa bereizi, iritzia ondorioztatu, igorlearen jarrera aztertu, tonuari erreparatu...
- Diskurtsoaren formari eta edukiari buruzko hausnarketa egin.
- Apunteak hartu.
- Diskurtsoaren inguruko galderak egin.
- Irakurritakoari edota entzundakoari buruzko iritzia garatu.

— Ahozko eta idatzizko testuak sortu:

- Testuingurua zehaztu: nori eta zertarako idatziko diogun eta, horren arabera, zer tonu, erregistro... erabiliko dugun, hots, diskurtsoa egoera horretara nola egokituko dugun pentsatu eta erabaki.
- Ideiak aukeratu eta ordenatu. Gidoia egin.
- Egitura pentsatu eta paragrafoak garatu.
- Zirriborroa zuzendu eta behin betiko testua idatzi.
- Baloratu.

— Informazioa bilatu:

- Informazio iturriak kontsultatu: idatzizkoak, ikus-entzunezkoak, teknologikoak...
- Informazioa helburuaren arabera aukeratu.
- Informazioa laburtu.

Literatur diskurtsoa

- Zenbait literatur testu irakurri, aztertu eta interpretatu.
- Literatur ^{lanek} islatzen duten errealitatea ikusten ahalegindu.
- Literatur espresabideak ezagutu.
- Literaturtasunaren muga dauden testu batzuk irakurri, aztertu eta interpretatu: saiakerak, kazetaritza artikuluak...
- Sorkuntza lanak, ekoizpenak, egin.

Hizkuntza ikasgai

- Perpausaren elementuak identifikatu, aztertu eta sailkatu.
- Perpausaren elementuen arteko erlazioak aztertu.

- Perpausaren elementuak manipulatu, aldaketa horiek esanahian nola eragiten duten ohartuz.
- Perpausen egitura aztertu.
- Testuari koherentzia ematen dioten elementuak ezagutu eta erabili.
- Testua kohesionatzeko bitartekoak identifikatu eta norberaren ekoizpenetan erabili.
- Hiztegi, gramatika liburu... informazio iturrietara jo, hizkuntzari buruzko zalantzak argitzeko.
- Testuen zuzentasuna aztertu.
- Testuak hizkuntza batetik bestera itzuli.
- Ortografia arauak ezagutu eta norberaren ekoizpenetan erabili.
- Hitzak sortzeko bideak ezagutu, identifikatu eta zuzen erabili.

Hizkuntza eta hiztunak

- Inguruko hizkuntza portaerak aztertu.
- Euskal Herriko egoera soliolinguistikoa aztertu.
- Euskal Herriko hizkeren arteko harremanak eta elkarrengan dituzten eraginak aztertu.
- Zenbait euskalkitan sortutako ahozko nahiz idatzizko testuak aztertu.

B. Kontzeptuzkoak

Hizkuntzaren erabilera

- Komunikazio egoera: elementuak. Horien garrantzia.
- Ahozko eta idatzizko testu motak (azalpena, argudioa, narrazioa...). Ezaugarriak.
- Diskurtso formalak eta informalak, ahoz eta idatziz.
- Eskolako testuak: ulermenerako eta ekoizpenerako teknikak.
- Euskarazko komunikabideetako testuak: telebista, irratia, Internet, prentsa...
- Hitzezko eta hitzik gabeko kodeak komunikabideetan.
- Testuen ekoizpenerako urratsak.
- Testuen ulermenerako estrategiak.

Literatur diskurtsoa

- Literatur testuen ezaugarriak.
- Euskal literatur idazle nagusiak. Ezaugarriak.

Hizkuntza ikasgai

- Testua eta testuingurua:
 - Solaskideak: gizarte rola.
 - Denbora, lekua.
 - Modalizazioa. Erregistroa (aditzaren tratamendua: hika, zuka...).
 - Munduarekiko ezagutza. Inplikazioa. Aurreiritziak.
 - Arau soziokomunikatiboak.

- Testuaren koherentzia: pragmatikoa, semantikoa eta sintaktikoa.
- Testuaren kohesiorako elementuak: gaiaren progresioa, antolatzaileak, aditzaren denbora...
- Perpausaren osagaiak. Perpaus motak. Galdegaia.
- Morfologia: deklinabidea eta aditza.
- Hiztegi Batua.
- Esaera zaharrak.
- Euskal esamolde jatorrak.
- Lexiko sorkuntzarako bideak.
- Ortotipografia.

Hizkuntza eta hiztunak

- Eleaniztasuna eta kultur aniztasuna.
- Elebitasuna eta eleaniztasuna.
- Euskal Herriko egoera soziolinguistikoa.
- Euskara batua eta euskalkiak.
- Euskararen normalkuntza.

C. Jarrerazkoak

Hizkuntzaren erabilera

- Ahozko eta idatzizko hizkuntza norberarentzat aberastasun gisa baloratzea.
- Hizkuntza idatzia menderatzeak norberaren garapenerako duen garrantziaz jabetzea.
- Komunikazio egoera bakoitzari era bateko diskurtsoa dagokiola ikustea, eta horrek elkarren arteko komunikaziorako duen balioaz jabetzea.
- Ahozko nahiz idatzizko testuetan, ezkutuan edota agerian, nabari diren balioen eta ideologiaren aurrean jarrera kritikoa izatea.
- Komunikabideek informazioa emateko, interpretatzeko, baloratzeko eta iritzia sortzeko erabiltzen dituzten baliabideen aurrean jarrera kritikoa izatea.
- Hizkuntza ezagutzarako eta pentsamenduaren garapenerako tresna gisa baloratzea.
- Euskararen erabilerarekiko sentsibilitatea eta aldeko jarrera garatzea.
- Irakurketa aberastasun iturri gisa baloratzea.
- Komunikaziorako arau sozialak errespetatzea.

Literatur diskurtsoa

- Literaturaren balioaz jabetzea, gertakari estetiko eta komunikatibo gisa, eta baita errealitate historiko-sozialaren adierazpen gisa ere.
- Literatur testuen irakurketa aberastasun iturri gisa baloratzea.

Hizkuntza ikasgai

- Hizkuntzaren inguruko hausnarketak norberaren ekoizpenak egoki eta zuzen egiteko duen garrantziaz jabetzea.

- Hizkuntzaren arauak erabiltzeak duen balioaz jabetzea.
- Informazio iturriak kontsultatzearen garrantziaz jabetzea.

Hizkuntza eta hiztunak

- Euskal gizartearen hizkuntz eta kultur aniztasuna begi onez ikustea eta aldeko jarrera erakustea.
- Hizkuntzaren aldaerak positiboki baloratzea eta errespetatzea.
- Euskara erabilera eremu guztietara zabaltzearen aldeko jarrera agertzea.
- Beste hizkuntzetatik euskarak hartu dituen maileguen eta kalko linguistikoaren aurrean jarrera kritikoa erakustea.
- Hizkuntzaren erabilera diskriminatzaileen aurrean jarrera kritikoa azaltzea.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1. Egoera komunikatibo formaletako testuak interpretatzen eta baloratzen ditu, funtzio soziala, kokatzen diren tradizioa, adieraziaren barne antolaketa eta transmititzen dituzten balioak kontuan izanik.
2. Erabilpen eremu formaletatik harturiko testu bat labur berridazten badaki, gaia zehaztuz eta ideia nagusiak azalduz, euren arteko loturak argitu eta ondo taiuturiko eskema batean hierarkikoki mailakatuz.
3. Ahozko zein idatzizko testu formalak eta informalak irakurri eta horien zentzua jasotzeko gai da: mezua, asmoa, tonua...
4. Gai jakin bati buruz aurretiaz planifikatutako ahozko azalpen bat egiteko gai da, urratsez urrats estrategia komunikatibo egokia erabiliz (informazioa bilatu, aukeratu, helburuaren arabera antolatu, informazioa nola eman erabaki...).
5. Komunikazio egoera formalei dagozkien idatzizko testu koherente, zuzen eta egokiak ekoizteko gai da, betiere testuinguru sozialari dagozkion komunikazio baldintzak kontuan izanik. Horretarako, badaki zer urrats eman (informazioa bildu, aukeratu, gidoia egin, zirriborroa idatzi, berrikusi, behin betiko ekoizpena egin).
6. Txostenak, ikerketa lanak, etab. elaboratzen badaki, dokumentazioa lortzeko eta informazioa aukeratu eta tratatzeko eskolak eskaintzen dizkion bitartekoak erabiliz.
7. Hizkuntzaren osagaiak (fonikoak, morfosintaktikoak, lexiko-semantikoak eta testualak) ezagutzen ditu, eta egoki erabiltzen ditu, testuak interpretatzerakoan eta norberaren ekoizpenetan.
8. Literatur lanen edukia interpretatzeko gai da, generoari dagozkion ezaugarriak abiapuntu gisa hartuta.
9. Euskal literaturako lan esanguratsuak interpretatzeko ahalmena badu, lanok sortu diren garai, egile, eta dagokien ingurune sozialarekin, historikoarekin eta estetikoarekin erlazionatuz.
10. Euskara batuak, euskalkiek eta aldaki sozio-kulturalek bereganatzen dituzten erabilera eremuak ezagutzen ditu, eta erabilera horiek kritikoki aztertze gaitasuna du.
11. Hizkuntzen atzerapen, ordezkapen eta normalkuntza prozesuen nondik norakoak ezagutzen ditu, eta badu horiek baloratzeko ahalmena.

12. Ahozko nahiz idatzizko komunikazioan adierazpen eta balorazio diskriminatzaileak identifikatzeko gai da, hausnarketa kritikoa eginez, norberaren ekoizpenetan ez erabiltzearren.
13. Europan euskararen errealitatea, egoera, zein den badaki. Ondorioz, badaki hizkuntzak kultura transmititzeko eta komunikaziorako tresna gisa baloratzen.

ANIZTASUNAREN TRATAERA

Aniztasunaz hitz egitean, kontuan hartu behar ditugu, batetik, ikastetxeen errealitatea (kokapena, inguru soziolinguistikoa, ezaugarriak —ikastetxearenak zein irakasleenak—...) eta, bestetik, ikasleena (jatorria, ezaugarri sozio-kulturalak, adimena, edukiak asimilatze gaitasuna...). Alde batetik zein bestetik begiratu, aniztasuna handia da Batxilergoan. Hori dela eta, proiektua diseinatzerakoan eta gauzatzerakoan, oso argi eduki dugu errealitate anitz horri erantzuteko aukera eman beharra. Ondorioz, ikasle ahalik eta gehienen erritmora eta interesetara egokitu daitekeen materiala egiten ahalegindu gara. Zer elementuren bidez eskaintzen da aukera hori?

- √ Materiala liburuxketan eskaintzen dugu, ikastetxe eta irakasle talde bakoitzak egindako curriculumerako egokien iruditzen zaion moduan antola dezan jakintzagaia.
- √ Jarduerak planteatzerakoan, ahalmen aniztasuna kontuan hartu dugu. Irakasleak, ikasleak dakitenetik abiatuz, proposamen didaktikoa era batera edo bestera gidatzeko aukera izango du.
- √ Lan egiteko hainbat modu bildu ditugu materialetan (planteamendu inductiboak nahiz deductiboak, esaterako).
- √ Ahozko nahiz idatzizko ekoizpenerako bina aukera eskaintzen ditugu sekuentzia didaktikoetan.
- √ Gramatikako edukiak lantzeko sekuentziak fitxaka antolatu ditugu, irakasleak beharren arabera aukera egin eta landu ditzan.

Baina, jakina, gure proposamenek mugak ere badituzte, era honetako proiektu baten bidez ezinezkoa baita behar guztiei erantzuteko materiala eskaintzea. Horregatik, aniztasunari erantzuna emateko zeregina, neurri batean, irakaslearen esku gelditzen da.

ZEHAR LERROAK

Alderdi honi arreta berezia jarri diogu, eta jarraipenezko tratamendua daukate materialetan, testuetan eta jardueretan modu naturalean eta integratzailean lantzen baitira. Hautatutako testuetan eta horien interpretazio eta trataeran, zehar lerroekin zerikusia duten arazoak aztertzen dira, eta testu horietan oinarrituz, ikasleak hausnarketa egitera bultzatzen dira.

MATERIALEN DESKRIBAPENA

Hona hemen aurretik esandakoa kontuan hartuz, Batxilergorako prestatutako materiala:

✓ *Komunikazioa I, II eta III- Batxilergoa. Ulermen, adierazpen eta hausnarketa trebetasunak lantzen*

Lau hizkuntza trebetasunak (irakurri, entzun, mintzatu eta idatzi) lantzeko sekuentzia didaktikoek osatzen dute materiala. Sekuentzia bakoitzaren egitura honako hau da:

-*Irakurri*. Sekuentziari hasiera ematen dion atalean, idatzizko testu bat (zenbaitetan bat baino gehiago) eskainiko dugu, eta helburu zehatz baten arabera irakurketa eta lanketa egingo da; helburua bertan adieraziko diogu ikasleari, horren arabera irakurketa egin dezan.

-*Entzun-mintzatu*. Hurrengo atalean, entzumena eta mintzamina landuko ditugu. Ahozko testu baten ulermenetik abiatuz, ahozko adierazpena lantzeko bi proposamen eskainiko ditugu, aukeran. Ulermenean zeri erreparatzen zaion, horren arabera izango da ahozko ekoizpenerako proposamena.

Proposamenetako bakoitzaren hasieran argi utziko diogu ikasleari zein den lanketaren helburua.

-*Idatzi*. Azken atalean idatzizko ekoizpena landuko da. Testu batetik abiatuz, horren inguruko lanketa egin eta, amaieran, ekoizpenerako bi proposamen luzatuko dizkiogu, aukeran. Horietako bakoitzean bereziki zer baloratuko den ere adieraziko diogu, ikasleak horretan jar dezan arreta.

Ahalegin berezia egin dugu sekuentzia didaktiko bakoitzaren haria gaia izan dadin.

KOMUNIKAZIOA lantzeko sekuentzia didaktikoak hiru liburuxkatan merkaturatuko ditugu:

Komunikazioa I, II eta III.

✓ *Hizkuntza aztertuz I – Batxilergoa. Gramatika gaitasuna lantzen*

Bi atalek osatzen dute liburua: gramatikako kontzeptuak lantzeko jarduerak, batetik, eta ikasleei jarduera horiek egiten lagunduko dieten azalpenak, bestetik. Bi atalak bereizita aurkituko dituzte, eta azalpenak kontsulta iturri gisa erabili ahal izango dituzte, horretarako beharra dutenean.

Jarduerak bost eduki multzotan banatuta ageri dira: morfosintaxia, deklinabidea, aditza, ortotipografia eta lexikoa. Multzo horietako bakoitza lantzeko proposatzen diren jarduerak fitxatan antolatuta eskaintzen ditugu, gelako programazioan hobeto txertatzeko.

Hainbat prozedura erabiliz landuko dira edukiak, eta horiek komunikazio testuinguruetan lantzeko, testu errealean oinarrituz egingo dute ikasleek hainbat fitxatan.

✓ *Selektibitatea – Batxilergoa 2. Hizkuntza trebetasunak lantzen*

Hizkuntzari dagozkion oinarrizko trebetasunak landuz (ulermena, adierazpena eta hausnarketa) selektibitateko azterketari eta antzeko edozein probari aurre egiteko erabili beharreko estrategietan trebatzeko koadernoak egin nahi izan dugu. Horretarako, azken urteetan selektibitatean jarri izan dituzten testu batzuk hautatu, eta horien inguruko lana proposatu dugu.

Batxilergoko ikasleek proba horietan emandako erantzunak abiapuntu gisa hartu, euren akatsak eta zailtasunak ikusi, eta horiei irtenbidea emateko lanketa proposatzen dugu.

Honako hau da koadernoaren egitura:

- a) Selektibitateko proba bat eginda eskaintzen da, eredu gisa.
- b) Proba gainditzeko zenbait azalpen bildu ditugu, adibide egokiekin eta desegokiekin.
- c) Lau proba jarri ditugu, eta horien lanketa bideratuta egiteko proposamena luzatu. Urratsez urrats, zer egin, zer ez, nola erantzun, nola ez... aztertuko dugu, azterketan eskatutakoari erantzun baino lehen.
- d) Azken proba bat ematen dugu, inongo laguntzarik gabe egiteko.
- e) Koadernoan zehar probako atal bakoitzaren erantzunak baloratzeko taulak eskaintzen diren arren, koadernoaren amaieran, proba bakoitzean ikasleak bere burua nola ikusi duen adierazteko taulak ditu. Era horretara, koadernoan zehar egindako ibilbidea aztertzeo aukera izango du, eta halako proba bati aurre egitean bereziki zer alderdiri erreparatu jakingo du.

GELAKO MATERIALA

√ *Komunikazioa I, II eta III- Batxilergoa. Batxilergoa. Entzungaiak (CDak)*

Entzunezko ulermena lantzeko grabazioak dira. Testu mota anitz bildu dugu: gehientsuenak bene-takoak, komunikabideetatik hartuak; beste batzuk, berriz, proiektu honetarako bereziki sortuak. Entzungai horiekin emango diogu hasiera ikaslearen liburuxketako *Entzun-mintzatu* ataleko proposamenen lanketari.

IRAKASLEAREN MATERIALA

√ *Komunikazioa I, II eta III- Batxilergoa. Erantzunak*

Hizkuntza aztertuz I – Batxilergoa. Erantzunak.

Selektibitatea. Batxilergoa, 2. maila. Erantzunak.

Ikaslearen materialean proposatzen diren jardueren erantzunak, horien inguruko iradokizunak eta proposamen gehigarriak biltzen dituzten liburuxkak dira.

√ *Komunikazioa I, II, III – Batxilergoa. Proiektua eta programazioa.*

Hizkuntza aztertuz I – Batxilergoa. Proiektua eta programazioa.

Liburuxka horietan, batetik, Batxilergorako prestatutako proiektua (alderdi metodologikoak eta didaktikoak, helburu eta eduki orokorrak...) bildu dira; bestetik, material bakoitzeko sekuentzia edo atal bakoitzaren helburuak, edukiak eta ebaluazio irizpideak.

Aurrera begira proiektua beste zenbait materialekin osatzeko asmoa daukagu, esaterako LITERATURA atala lantzeko materialekin.

PROGRAMAZIOA

1. SEKUENTZIA DIDAKTIKOA

Helburuak

- Ulermenean trebatzea, helburuen araberako irakurketak eginez.
- Arreta eta oroimena lantzea, ulermenerako estrategia gisa.
- Arretan eta oroimenean eragina duten elementuei buruzko gogoeta egitea.
- Testuen komunikazio egoera aztertzea, eta horrek testua ulertzeko duen garrantziaz jabetzea.
- Arretaz entzuten ikastea, eta horrek duen garrantziaz jabetzea.
- Apunteak hartzen trebatzea.
- Ahozko azalpen labur bat prestatzea eta egitea, eta planifikatuta lan egitearen balioaz konturatzeko.
- Talde lanean aritzea.
- Azalpena egitea entzundakoarekin lotuz, eta hizlari on batek zaindu beharreko alderdiak zainduz (argitasuna, zehaztasuna, soiltasuna, kortesia eta naturaltasuna).
- Elkarren azalpenak baloratzea, ongi egindakoa azpimarratuz eta hobetu daitekeena begirunez adieraziz.
- Taldean hitz egiterakoan, parte hartzea, txandak errespetatzea, besteen jarduna arretaz entzutea eta begirunez mintzatzea.
- Idazlanak egiteko norberak ematen dituen pausoez gogoeta egitea.
- Idazlanak idatziz norberaren ahotsa deskubritu daitekeela ohartzea.
- Aldez aurretik zehaztutako pausoei jarraituz, idazlan txukuna idaztea.
- Idazlanen zirriborroa zuzentzeko ohitura hartzea.

Edukiak

Prozedurazkoak

- Testua arretaz irakurri, eta arreta eta memoria neurtzeko galderei erantzun.
- Norberaren arretari eta memoriari buruzko gogoeta egin.
- Irakurritako testuen komunikazio egoera aztertu.
- Hartzailearen helburua kontuan hartuz, aztertu mezuak bidaltzeko zer bide den egokiena.
- Arretaz entzun, eta entzundakoa idatziz jaso, nork bere hitzetan, helburua kontuan hartuz.
- Elkarren apunteak alderatu, eta ondorioak atera.
- Taldean mintzatu, begirunez, eta elkarrena entzunez.
- Entzungaitik jasotako datuak norberak dituenekin alderatu.
- Datu konparaketaren ondorioak ahoz azaldu eta, horretarako, gidoia prestatu.
- Elkarren azalpenak baloratu, eta hobetzeko iradokizunak egin.
- Norberaren buruari galderak egin, idazteko gaiari buruz zer dakien eta zer pentsatzen duen deskubritzeko.
- Besteen idazlanak aztertu (zer kontatu duten eta nola).
- Ikasle batek idazlanean egindako akatsak identifikatu, eta hobetzeko proposamenak egin.

- Idazlanerako informazioa hautatu, helburuaren arabera.
- Idazlanetako gaien inguruan hausnartu, eta norberaren gustukoak definitu.
- Idazlana urratsez urrats egin, urrats bakoitzean egindakoa zuzenduz.
- Ikaskidearen zirriborroa aztertu, eta hobetzeko proposamenak egin.

Kontzeptuzkoak

- Irakurketak:
 - *Gazteen ahotsak*, www.unicef.org
 - *Behia*. Andoni Egaña.
 - Idazlana. *Behia*. Beñat (ikaslea)
- Entzungaia:
 - *Gazteak eta komunikabideak*, Txema Ramirezi elkarrizketa. Euskadi Irratia.
- Komunikazio prozesuko elementuak.
- Idatzizko ulermena:
 - Arreta eta memoria neurtzeko irakurketa.
- Ahozko ulermena:
 - Entzuketa arretatsua.
 - Informazioaren antolaketa: informazio garrantzitsua eta bigarren mailakoa.
 - Apunteak hartzeko teknika.
- Ahozko ekoizpena:
 - Apunteak hartzeko prozesuaren balorazioaren azalpen laburra.
 - Ahozko komunikaziorako arauak: txandak eta denborak, begirunea, arreta...
 - Hizlari onak zaindu beharreko alderdiak: argitasuna, zehaztasuna, soiltasuna, kortesia eta naturaltasuna.
- Idatzizko ekoizpena:
 - Idazlana, norberak dakienetik abiatuta. Gaiak:
 1. PROPOSAMENA: *Behia*.
 2. PROPOSAMENA: *Zeren inguruan idatziko zenuke gustura?*
 - Norberak dakiena deskubritzeko teknika. Ikuspuntu pertsonala.
 - Idazketarako pausoak.
 - Idazlearen rola.
 - Koherentzia: informazio kantitatea eta kalitatea.
 - Idazteko estiloa hobetzeko baliabideak: egitura aktiboak, hitzen ordena, esaldien luzera...

Jarrerazkoak

- Irakurtzen, idazten eta mintzatzen gozatzea.
- Ahozko nahiz idatzizko testuen ulermenean trebatzeko gogoia eta interesa piztea.
- Komunikazio prozesuko elementuek testuen ulermenean duten garrantzia baloratzea.
- Apunteak hartzen ikasteko gogoia, eta teknika hori hobetzeko nahia agertzea.
- Taldean lan egiten ikastea eta gozatzea.
- Ikaskideei laguntzeko joera agertzea.
- Besteen jarduna arretaz eta begirunez entzutea.
- Idazteko interesa erakustea, norberaren pentsamendua deskubritzeko bide gisa.

- Idazlanean norberaren ikuspuntua azaltzeko interesa agertzea.
- Hizkuntza egoki eta zuzen erabiltzeko interesa garatzea.
- Norberaren ekoizpenak hobetzeko interesa erakustea.
- Besteen balorazioak eta kritikak onartzea, ikaskuntza prozesuan aurrera egiteko.
- Komunikazio egoerak testuen ulermenerako eta ekoizpenerako duen garrantziaz jabetzea.
- Idazlanaren zirriborroa berrikustek duen garrantzia onartzea.
- Idatzizko lana mendertzek duen garrantziaz kontzientzia hartzea.
- Lanak txukun aurkezteko ardura erakustea.

Ebaluazio irizpideak

- Testua arretaz irakurri du, bere arreta eta memoria neurtu eta baloratu du, eta badaki hobetzeko zer egin.
- Komunikazio elementuak aztertu ditu, eta kontuan hartzen ditu testuak irakurtzean.
- Ahozko diskurtsoak arretaz entzun ditu, eta entzundakoa ulertzen eta bere hitzetan jasotzen saiatu da.
- Besteek apunteak nola hartzen dituzten aztertu du, eta bere teknika hobetzen saiatu da.
- Ahozko azalpena prestatzeko talde lanean parte hartu du.
- Ahozko azalpena entzundakoarekin lotuz egin du, eta hizlari on batek zaindu beharreko alderdiak zaintzeko ahalegina egin du (argitasuna, zehaztasuna, soiltasuna, kortesia, naturaltasuna).
- Ikaskideen ahozko azalpenak baloratu ditu, eta hobetzeko proposamenak egin ditu.
- Taldeko ahozko jardunetan parte hartu du, hitz egiteko txandak errespetatuz, eta besteena begirunez entzunez.
- Galderen teknika erabiliz, idazlanaren gaiari buruz zer dakien eta zer pentsatzen duen deskubritzen saiatu da, eta idazlanean bere ikuspuntua garatu du.
- Idazlanaren helburua zehaztu du, eta horren arabera hautatu du zer informazio erabili.
- Idazlanean hizkuntza argia eta bizia erabiltzen eta gauzak kontatzeko egin ohi diren akatsak saihesten ahalegindu da.
- Idazlana pausoz pauso egin du, horrek azken emaitzean duen eraginaz jabetuta.

2. SEKUENTZIA DIDAKTIKOA

Helburuak

- Ulermenean trebatzea, helburuen araberako irakurketak eginez.
- Arreta eta oroimena lantzea, ulermenerako estrategia gisa.
- Arretan eta oroimenean eragina duten elementuei buruzko gogoeta egitea.
- Testuen komunikazio egoera aztertzea, eta horrek testua ulertzeko duen garrantziaz jabetzea.
- Arretaz entzuten ikastea, eta horrek duen garrantziaz jabetzea.
- Apunteak hartzen trebatzea.
- Norberaren iritzia deskubritzea.
- Tesia binaka adostea, elkarren ideiak eta ekarpenak onartuz eta errespetatuz.
- Iritzia defendatzeko arrazoi pisutsuenak aukeratzea, eta ahoz adieraztea, jasotako informazioarekin lotuz.
- Zutik jendaurrean hitz egitea, aurrez zehaztutako denboran, eta mezua eta adierazteko moduak entzulei egokituz.
- Elkarren azalpena baloratzea, ongi egindakoa azpimarratuz eta hobetu daitekeena begirunez adieraziz.
- Informazio iturriak erabiliz idazlana txukun eta egoki idaztea, eta horrek duen balioaz ohartzea.
- Idazlanean norberaren ikuspuntua garatzea, gaiari buruz zer pentsatzen duen, zer iritzi duen deskubrituz.
- Tesia defendatzeko argudioak eta kontrako argudioak erabiltzea, eta erabiliko duen informazio kantitatea neurtzea.
- Dokumentazio iturriak kontsultatzerakoan, helburuaren arabera informazio garrantzitsua eta bigarren mailakoa bereiztea.
- Jasotako informazioaren berri ematean eta norberaren iritzia azaltzean oreka lortzea.
- Aldez aurretik zehaztutako pausoei jarraituz, idazlan txukuna idaztea.
- Idazlanen zirriborroa zuzentzeko ohitura hartzea.
- Elkarren idazlanak baloratzea, ongi egindakoa azpimarratuz eta hobetu daitekeena begirunez adieraziz.

Edukiak

Prozedurazkoak

- Testua arretaz irakurri, eta arreta eta memoria neurtzeko galderei erantzun.
- Norberaren arretari eta memoriari buruzko gogoeta egin.
- Irakurritako testuen komunikazio egoera aztertu.
- Hartzailearen helburua kontuan hartuz, mezuak bidaltzeko zer bide den egokiena aztertu.
- Arretaz entzun, eta informazio garrantzitsuena idatziz jaso, nork bere hitzetan, helburua kontuan hartuz.
- Elkarren apunteak alderatu, eta ondorioak atera.
- Gaiaren inguruan norberaren iritzia deskubritu, eta gidoia prestatu, jasotako informazioarekin lotuz.
- Iritzia ahoz azaldu, zehaztutako denboran.

- Elkarren azalpenak baloratu, eta hobetzeko iradokizunak egin.
- Idazlanak egiteko gaien aurrean, zer kontatu erabakitzean, norberak egiten duenaz gogoeta egin.
- Besteen idazlanak aztertu (zer kontatu duen eta nola).
- Ikasle batek idazlanean egindako akatsak identifikatu, eta hobetzeko proposamenak egin.
- Nork bere buruari galderak egin, idazteko gaiari buruz zer dakien eta zer pentsatzen duen deskubritzeko.
- Informazio iturriak erabili, helburuaren arabera garrantzitsua den informazioa hautatuz eta gainerakoa alde batera utziz.
- Idatziz gai bati buruzko iritzia eman, informazio iturriak erabiliz.
- Idazlana urratsez urrats egin, urrats bakoitzean egindakoa zuzenduz.
- Ikaskidearen zirriborroa edota idazlana aztertu, eta hobetzeko proposamenak egin.

Kontzeptuzkoak

- Irakurketak:
 - Astronautaren bizimodua ez da erraza, alajaina!*, Deiaren D2 atalean argitaratua.
 - Idazlana. *Zer egiten dudan?*, Eneritz (ikaslea).
- Entzungaia:
 - Robota*, Xabier Mendigureni elkarrizketa. Euskadi Irratia.
- Komunikazio prozesuko elementuak.
- Idatzizko ulermena:
 - Arreta eta memoria neurtzeko irakurketa.
- Ahozko ulermena:
 - Entzuketa arretatsua.
 - Informazioaren antolaketa: informazio garrantzitsua eta bigarren mailakoa.
 - Apunteak hartzeko teknika.
- Ahozko ekoizpena:
 - Iritzia.
 - Tesia eta hori defendatzeko arrazoiak.
- Idatzizko ekoizpena:
 - Idazlana, informazioa iturriak erabiliz.
 1. PROPOSAMENA: beste baten rolean, haren tesia defendatu.
 2. PROPOSAMENA: *Garapena sustatu al daiteke ingurugiroari kalte gehiago egin gabe?*
 - Iritzia adierazteko moduak: baieztapenak, galderak, ironia.
 - Koherentzia: informazio kantitatea eta kalitatea.
 - Idazteko estiloa hobetzeko baliabideak: hitzen zehaztasuna, esaldien luzera, hitzen ordena...
 - Idazketarako pausoak.

Jarrerazkoak

- Irakurtzen, idazten eta mintzatzen gozatzea.
- Ahozko nahiz idatzizko testuen ulermenean trebatzeko gogoia eta interesa garatzea.

- Komunikazio prozesuko elementuek testuen ulermenean duten garrantzia baloratzea.
- Apunteak hartzen ikasteko gogoia, eta teknika hori hobetzeko nahia agertzea.
- Elkarlanean parte hartzea eta ikaskideei laguntzeko joera agertzea.
- Besteen jarduna arretaz eta begirunez entzutea, eta haien iritziekiko jarrera irekia agertzea.
- Idazteko interesa erakustea, norberaren pentsamendua deskubritzeko bide gisa.
- Idazlanean norberaren ikuspuntua azaltzeko interesa agertzea.
- Dokumentazio iturrien erabilera baloratzea, informazio berriak jasotzeko iturri gisa.
- Hizkuntza egoki eta zuzen erabiltzeko interesa garatzea.
- Norberaren ekoizpenak hobetzeko interesa erakustea.
- Besteen balorazioak eta kritikak onartzea, ikaskuntza prozesuan aurrera egiteko.
- Komunikazio egoerak testuen ulermenerako eta ekoizpenerako duen garrantziaz jabetzea.
- Idazlanaren zirriborroa berrikustek duen garrantzia onartzea.
- Idatzizko lana mendertzeak duen garrantziaz kontzientzia hartzea.
- Lanak txukun aurkezteko ardura erakustea.

Ebaluazio irizpideak

- Testua arretaz irakurri du, norberaren arreta eta memoria neurtu eta baloratu du, eta badaki hobetzeko zer egin.
- Komunikazio elementuak aztertu ditu, eta kontuan hartzen ditu testuak irakurtzean.
- Ahozko diskurtsoak arretaz entzun ditu, eta entzundakoa ulertzen eta bere hitzetan jasotzen saiatu da.
- Besteek apunteak nola hartzen dituzten aztertu du, eta bere teknika hobetzen saiatu da.
- Bere iritzia deskubritzeko ahalegina egin du.
- Ikaskidearekin elkarlanean, ahoz azalduko duten iritziaren tesia egoki formulatu du, eta hori defendatzeko balio dezaketen arrazoiak zerrenda egin du.
- Iritzia defendatzeko arrazoi pisutsuak hautatu ditu.
- Ahozko jarduna zehaztutako denboran egin du, eta mezua eta adierazteko modua entzuleei egokitzen ahalegindu da.
- Ikaskidearen jarduna baloratu du, eta hobetzeko proposamenak egin dizkio.
- Idazlanean bere ikuspuntua garatu du, dokumentazio iturrietatik jasotako informazioan oinarrituz.
- Tesia defendatzeko, argudioak eta kontrako argudioak erabili ditu, eta erabilitako informazio kantitatea zaindu du.
- Idazlanean oreka lortu du, jasotako informazioaren berri eta bere iritziaren berri emateko moduan.
- Idazlana egiteko pausoei jarraitu die, eta testu egokia eta txukuna idatzi du.

3. SEKUENTZIA DIDAKTIKOA

Helburuak

- Ulermenean trebatzea, helburuen arabera irakurketak eginez.
- Irakurritakoa dakienarekin lotzea eta zer pentsatzen duen deskubritzea.
- Testuen komunikazio egoera aztertzea, eta horrek testua ulertzeko duen garrantziaz jabetzea.
- Entzule ona izaten ikastea.
- Arretaz entzutea, eta informazioa norberak pentsatzen duenarekin lotzea.
- Ahozko jardunean informazio eta datu zehatzak identifikatzea.
- Ahozko jardunetan ideiak azpimarratzeko erabiltzen diren baliabideak ezagutzea, eta iritzia ematerakoan erabiltzea.
- Binaka, gaiaren inguruko iritzia adostea, planifikatzea eta ahoz ematea.
- Jendaurrean, garbi, ozen, mantso eta dotore mintzatzea.
- Elkarren jardunak baloratzea, ongi egindakoa azpimarratuz eta hobetu daitekeena begirunez adieraziz.
- Idazketaren bidez zer pentsatzen duen deskubritzea.
- Idazlanak hobetzeko ardura izatea, eta horren garrantziaz konturatzeko.
- Iritzia ematerakoan, adierazkortasuna eta begirunea lantzea.
- Blogetan idazteko eman ohi diren aholkuak ezagutzea, eta ekoizpenetan kontuan hartzea.
- Blogetan iritzia begirunez adieraztea, eta horren garrantzia baloratzea.
- Iritzia modu egokian ematea, komunikazio egoerari egokituta.
- Elkarren idatzizko ekoizpenak baloratzea, hobetzeko proposamenak egitea, eta horiek onartzea.

Edukiak

Prozedurazkoak

- Testua irakurri, norberak dakienarekin lotuz, eta zer pentsatzen duen deskubrituz.
- Irakurketa prozesuari buruzko gogoeta egin.
- Irakurritako testuen komunikazio egoera aztertu.
- Entzungaia arretaz entzun, eta informazio eta datu zehatzak identifikatu.
- Entzungaitik jasotako datuak norberak dakienarekin lotu.
- Ahozko jardunean ideiak azpimarratzeko erabiltzen diren baliabideak identifikatu.
- Taldearen iritzia adostu, labur azaldu, ideiak azpimarratzeko baliabideak erabiliz.
- Elkarren jardunak baloratu, eta hobetzeko proposamenak egin.
- Gazte baten iritzia entzun, aztertu, eta binaka, gaiaren inguruko iritzia adostu, planifikatu eta eman, zehaztutako denborari egokituta.
- Iritzia ahoz ematerakoan, tesia, argudioak eta kontra argudioak erabili.
- Blog bateko iritzia, eta horri emandako zenbait erantzun aztertu: zer esaten duen eta nola (jarrera, begirunea...).
- Iritzia begirunez adierazteko moduak aztertu.
- Blog batean iritzia eman duenari modu baikorrean erantzun, hizkera eta tonua zainduz.
- Blog batean argitara emateko iritzia idatzi, hizkera eta tonua zainduz.
- Elkarren zirriborroak edota behin betiko ekoizpenak baloratu, eta hobetzeko proposamenak egin.

Kontzeptuzkoak

- Irakurketak:
 - Bar egarri*, Sustrai Colina, www.berria.info
 - Non sartzen da jendea?*, Julen Gabiria, www.eibar.org/blogak/gabiria/173#comments
- Entzungaiak:
 - Zertan ematen dugu denbora?* 1. zatia
 - Zertan ematen dugu denbora?* 2. zatia
 - Sustrai Colinak dioenaz*
- Komunikazio prozesuko elementuak.
- Idatzizko ulermena:
 - Norberak dakienarekin lotzeko eta zer pentsatzen duen deskubritzeko irakurketa.
 - Irakurlearen papera.
- Ahozko ulermena:
 - Entzuketa arretatsua.
 - Informazio garrantzitsua eta bigarren mailakoa.
- Ahozko ekoizpena:
 - Iritzia.
 - Ahoz ideiak azpimarratzeko teknikak.
 - Ahozko adierazpena prestatzeko eta egiteko aholkuak.
- Idatzizko ekoizpena:
 - Norberak dakiena eta pentsatzen duena deskubritzeko idazketa.
 - Bloggerako iritzia.
 - Blog bateko iritziari erantzuna.
 - Blogetan idazteko aholkuak.

Jarrerazkoak

- Irakurtzen, idazten eta mintzatzen gozatzea.
- Ahozko nahiz idatzizko testuen ulermenean trebatzeko gogoia eta interesa garatzea.
- Irakurketa norberaren ezagutzak eraikitzeko iturri gisa baloratzea.
- Komunikazio prozesuko elementuek testuen ulermenean duten garrantzia baloratzea.
- Besteen jardunaren aurrean arreta eta begirunea erakustea.
- Ahozko hizkuntza aberastasun iturri gisa baloratzea.
- Talde lanean parte hartzea, eta elkar ulertzeko ahalegina egitea.
- Ikaskideei laguntzeko joera agertzea.
- Jendaurrean hitz egiteko konfiantza eurenganatzea.
- Iritzia begirunez emateak duen balioaz jabetzea.
- Idazteko interesa erakustea, norberak dakiena garatzeko bide bezala, eta idatzizko lana mendertzeak duen garrantziaz kontzientzia hartzea.
- Internetek eskaintzen dituen aukerez ohartzea eta aberastasun iturri gisa baloratzea.
- Idatzizko ekoizpenak hobetzeko interesa erakustea.
- Hizkuntza egoki eta zuzen erabiltzeko interesa garatzea.
- Besteen balorazioak eta kritikak onartzea, ikaskuntza prozesuan aurrera egiteko.

Ebaluazio irizpideak

- Testua irakurri du, eta gogoeta egin du gaiari buruz dakienaren eta pentsatzen duenaren inguruan.
- Komunikazio elementuak aztertu ditu, eta kontuan hartu ditu testuak irakurtzean.
- Irakurketa prozesuaz hausnartu du, eta aurretik dakigunak ulermenean daukan eraginaz konturatu da.
- Ahozko diskurtsoak arretaz entzun ditu, eta eskatutako informazioa eta datuak zuzen jaso ditu.
- Ahozko jardunetan ideiak azpimarratzeko hizlariak erabili dituzten baliabideak identifikatu ditu, eta bere jardunetan erabiltzen badaki.
- Ikaskideekin elkarlanean, iritzia adostu, planifikatu eta egoki eman du.
- Jendaurrean, garbi, ozen, mantso eta dotore mintzatu da.
- Ikaskideen jardunak baloratu ditu, eta hobetzeko proposamenak egin ditu.
- Ikaskideen aholkuak modu onean entzun ditu, eta kontuan hartu ditu.
- Blogetan idazteko eman ohi diren aholkuak ezagutzen ditu, eta bere ekoizpenetan kontuan hartu ditu.
- Iritzia egoki eman du, modu adierazkorrean eta begirunez.

4. SEKUENTZIA DIDAKTIKOA

Helburuak

- Ulermenean trebatzea, helburuen araberako irakurketak eginez.
- Irakurritakoa dakienarekin lotzea eta zer pentsatzen duen deskubritzea.
- Testuen komunikazio egoera aztertzea, eta horrek testua ulertzeko duen garrantziaz jabetzea.
- Apunteak hartzea, eta jasotako informazioa norberak pentsatzen duenarekin lotzea.
- Entzundakoa eta horri buruz norberak daukan iritzia labur eta odo azaltzea.
- Ahozko jardunean ideiak azpimarratzeko hizlariak erabiltzen dituen baliabideak identifikatzea eta ahozko jardunean erabiltzea.
- Ahozko adierazpenetan, tonua, erritmoa eta ahoskera zaintzea.
- Norberaren hizkerari buruzko gogoeta egitea, eta hori hobetzeko interesa erakustea.
- Taldean lan egiten ikastea.
- Euskal lokuzioei buruzko informazio iturriak ezagutzea, ekoizpenetan erabiltzea, eta norberaren hizkera aberasteko duten balioaz ohartzea.
- Web orriak aztertzea, baloratzea, eta, norberaren irizpideak erabiliz, interesgarrienaren berri ikaskideei ematea, bertan zer informazio eta nola ematen den labur azalduz.
- Idazketaren bidez zer pentsatzen duen deskubritzea.
- Euskararen etorkizunaz gogoeta egitea.
- Iritzia defendatzeko argudio mota batzuk ezagutzea, eta norberaren ekoizpenetan erabiltzea.
- Idatzizko lan bat egitean izandako kezkei, zailtasunei, zalantzei... buruzko gogoeta egitea, eta blog batean argitara emateko idaztea.
- Euskararen inguruko proiektu, gertakizun, albiste... baten inguruko iritzia ematea.
- Elkarren zirriborroak edota behin betiko ekoizpenak baloratzea, hobetzeko proposamenak egitea, eta horiek onartzea (bereiziki hizkeraren bizitasunari erreparatuz).
- Euskarak kalean (karteletan...) daukan presentziaz eta presentzia horren kalitateaz gogoeta egitea.

Edukiak

Prozedurazkoak

- Testua irakurri, norberak dakienarekin lotuz eta zer pentsatzen duen deskubrituz.
- Gaiari buruz pentsatzen duena labur adierazi.
- Irakurritako testuen komunikazio egoera aztertu.
- Entzun, apunteak hartu, eta jasotako informazioa norberak dakienarekin lotu.
- Ahozko azalpenaren gidoia prestatu, aholkuei jarraituz.
- Entzundakoa eta hari buruzko iritzia ahoz labur eta ondo azaldu, tonua, erritmoa eta ahoskera zainduz.
- Entzundako jardunean hizlariak ideiak azpimarratzeko erabiltzen dituen baliabideak identifikatu, eta norberaren jardunean erabili.
- Entzugaian gazteen hizkeraz esaten dena entzun, eta norberaren hizkerari buruzko gogoeta egin.
- Lokuzioei buruzko web orriak kontsultatu, eta gelakideei ahoz horietako baten berri eman.

- Elkarren jardunak baloratu, eta hobetzeko proposamenak egin.
- Gazte batek idazlan prozesuan bizi izandakoaz kontaktzen duena irakurri, eta aztertu zer eta nola kontaktu duen.
- Arrazoiak emateko moduak aztertu, eta erabili.
- Esaldiak berridatziz lokuzioak erabili eta barneratu.
- Idazlan bat egiteko prozesuan izandako kezkei, zalantzei... buruzko gogoeta egin, eta idatziz azaldu blogean argitaratzeko, helburuaren eta hartzailearen araberrako hizkera erabiliz.
- Euskararen inguruko proiektu, gertakizun, albiste... baten inguruko iritzia begirunez eta modu adierazkorrean eman, helburua eta hartzailea zehaztu eta gero.
- Elkarren zirriborroak edota lanak baloratu, bereziki hizkeraren bizitasuna, eta hobetzeko proposamenak egin.

Kontzeptuzkoak

- Irakurketak:
 - Ez gara fashionak, baina...*, Julen Gabiria, www.eibar.org/blogak/gabiria
 - Koldo Zuazo, *Euskararen sendabelarrak*, Alberdania (zattia).
- Entzungaia:
 - Nire euskara eta zure euskara*, Kike Amonarrizi elkarrizketa. Euskadi Irratia.
 - Kikek nola kontaktu du?*, Kike Amonarrizi elkarrizketa. Euskadi Irratia (zattia).
- Komunikazio prozesuko elementuak.
- Idatzizko ulermena:
 - Norberak dakienarekin lotzeko eta zer pentsatzen duen deskubritzeko irakurketa.
- Ahozko ulermena:
 - Entzuketa arretatsua.
 - Informazio garrantzitsua eta bigarren mailakoa.
- Ahozko ekoizpena:
 - Entzundakoaren azalpen laburra eta iritzia.
 - Lokuzioei buruzko web orri baten azalpena.
 - Ahozko azalpenaren gidoia egiteko aholkuak.
 - Ahozko adierazpena egiteko aholkuak.
- Idatzizko ekoizpena:
 - Argudio motak.
 - Hizkera bizia: lokuzioak.
 - Modalizatzaileak.
 - Idazlan prozesuan bizi izandakoaren kontaketa.
 - Euskararen inguruko proiektu, albiste, gertakizun... baten azalpena, eta horri buruzko iritzia.

Jarrerazkoak

- Ahozko nahiz idatzizko testuen ulermenean trebatzeko gogoeta eta interesa garatzea.
- Irakurketa norberaren ezagutzak eraikitzeko iturri gisa baloratzea.
- Komunikazio prozesuko elementuek testuen ulermenean duten garrantzia baloratzea.
- Ahozko hizkuntza aberastasun iturri modura baloratzea.
- Talde lanean parte hartzea, eta elkar ulertzeko ahalegina egitea.

- Hizkera hobetzeko interesa azaltzea, eta lokuzioak horretarako duten balioaz ohartzea.
- Internetek eskaintzen dituen aukerez ohartzea, eta aberastasun iturri gisa baloratzea.
- Euskararen etorkizunari buruzko interesa erakustea, eta jarrera aktiboa hartzea.
- Idazteko interesa erakustea, norberak dakiena garatzeko bide bezala, eta idatzizko lana menderatzeak duen garrantziaz kontzientzia hartzea.
- Hizkuntza egoki eta zuzen erabiltzeko interesa garatzea.
- Ikaskuntza prozesuan aurrera egiteko besteen balorazioak eta kritikak onartzea.

Ebaluazio irizpideak

- Testua irakurri du, eta gogoeta egin du gaiari buruz dakienaren eta pentsatzen duenaren inguruan.
- Komunikazio elementuak aztertu ditu, eta kontuan hartu ditu testuak irakurtzean.
- Ahozko diskurtsoak arretaz entzun ditu, eta entzundakoa labur azaltzeko informazio garrantzitsuena jaso du.
- Ahozko jardunetan ideiak azpimarratzeko hizlariak erabili dituzten baliabideak identifikatu ditu, eta bere jardunean erabili ditu.
- Entzundako jarduna labur eta egoki azaltzean, tonua, erritmoa eta ahoskera zaindu ditu.
- Bere hizkerari buruzko gogoeta egin du, eta hobetzeko interesa azaldu du.
- Taldean lan egiten badaki.
- Lokuzioei buruzko informazio iturriak kontsultatu ditu, eta ekoizpen lanetan erabili ditu.
- Lokuzioei buruzko web orri interesgarriena hautatu du, eta ikaskideei horren berri eman die.
- Iritzi testuak idazteko argudio mota batzuk aztertu ditu, eta ekoizpenetan erabili ditu.
- Idatzizko lan baten aurrean izandako esperientzia eta bizipenak egoki idatzi ditu, blog batean argitara emateko moduan.
- Euskararen inguruko proiektu, gertakizun, albiste... baten berri eman du, eta hari buruzko iritzia begirunez eta modu adierazkorrean azaldu du.
- Ikaskidearen lana baloratu du, eta hobetzeko proposamenak egoki egin dizkio.
- Ikaskideen balorazioak eta lana hobetzeko proposamenak kontuan hartu ditu.